

### Sareak eta alforjak ehunduz

## ERAKUNDEAREN PRESTAKUNTZA PLANA

“Bateratu egin behar izan genuen bakoitza banaka gainditu egiten gintuen erronka horri erantzuteko. Eta modu intentsoan, mantsoan eginez joan ginen, eta egunero, antolaketa-egiturak azkartu gabe, bakoitzak bere alforjetan zekarrena partekatuz, zeregin eta erantzukizun handiak onartuz, betiere, elkartuta aurre egitea erraza izango zela seguru egonik... Konplizitateak ehotuz joan ginen eta gure indarrarekin korapiloak egin genituen”

Oscar Jara Costa Ricako Alforja Argitalpen eta Ikasketa Zentroko ([www.alforja.or.cr/centros/cep](http://www.alforja.or.cr/centros/cep)) zuzendari nagusiaren eta CEAAL Latinoamerikako Helduen Hezkuntzako Kontseiluko Sistematizazio Latinoamerikarreko Programaren koordinatzailearen “El trabajo en red: tejer complicidades y fortalezas” laneko aipua.

### **Zer eskaintzen dugu?**

Hirugarren sektoreko erakundeen arteko laneko esparrua, erakundeak sustatzen adituak diren pertsonen lagunduta, erakundeetako hobekuntza sustatzeko eta partekatutako ikaskuntzak sortzeko.

### **Zergatik?**

Partekaturiko ikasketa banakakoa baino aberatsagoa delako, esperientziak trukatzeko eta sinergiak sortzeko guneak sortzea ahalbidetzen duelako, eta beste lagun eta erakunde batzuk ezagutzeko eta ikasketa uneetatik haratago doazen harremanak eta lankidetzak ezartzeko parada eskaintzen duelako.

### **Zeintzuk erakunde gonbidatu ditugu?**

- Bizkaiko hirugarren sektoreko erakundeak, tamaina erdikoak edota txikiak, batez ere proiektuen kudeaketarekin, eta kudeaketa hori berrikuntzarako tresna gisa erabiltzeko zailtasunak dituztenak.
- Erakundeak behar duen prestakuntzari, pertsonen haren erronkak lortzen laguntzeko eskuratu behar dituzten gaitasunei eta Prestakuntza Plana garatzeko prozesuari buruzko azterketan interes esplizitua jarrita.



Sareak eta  
alforjak  
ehunduz

### **Zenbat erakunde gonbidatu ditugu?**

Adierazitako eskakizunak betetzen dituzten eta abentura honetan murgildu nahi duten guztiak. Bosna erakundeko taldeak sortuko ditugu, batera egindako lan-esparruak parte-hartzaileak izan daitezen eta elkarrizketarako bideak izan ditzaten.

### **Zein konpromiso hartuko dute?**

- Erakunde bakoitzetik bi pertsona joango dira, eta hutsik ez egitea eta partaidetza aktiboa eskatuko zaie.
- Gaiarekin bat datozen kontuak zintzotasunez eta konfidentzialki partekatzea, ikasteko xede bakarrarekin.
- Hausnarketak partekatzea euren erakundeetan.
- Agindutako eginkizunak gauzatzea saioen artean.
- Lan-saioetan izaten dituzten esperientziak modu ireki eta gardenean partekatzea.
- EDE Fundazioarekin eta BBK Gizarte Ekintzarekin konpromiso-akordioa sinatzea.

### **Zein metodo erabiliko dugu?**

#### **Akonpainamendu kolektiboa:**

3 orduko iraupena izango duten lan bateratuko 4 saio egingo dira. Saio horietan, ekarpen teorikoak, ariketa praktikoak eta gure erakundeetako prestakuntza-beharrak detektatzeko dinamikari buruzko gogoetak uztartuko ditugu. Hausnarketa erakundera eramatea ahalbidetuko duten eginkizunak proposatuko dira saioen artean.

#### **Banakako akonpainamendua:**

Erakunde partaide bakoitzak 2 ordu iraungo duten banakako 3 saio izango ditu. Saio horietan, partaide guztien artean ikasitakoa erakunde jakin horretara eramatea ahalbidetuko duten eginkizunak jorratuko dira. Erakunde bakoitzarekin adostuko da zeintzuk kide joango diren saioetara.



Sareak eta  
alforjak  
ehunduz

### **Zeintzuk eduki landuko ditugu?**

- Prestakuntza Plana prestatzeko prozesua.
- Erakundearen estrategiari lotutako gaitasunak.
- Lanpostuei lotutako gaitasunak.
- Langileek eta boluntarioek sentitutako eta identifikatutako beharrei lotutako gaitasunak.
- Prestakuntza Planaren definizioa.
- Prestakuntza Plana prestatzeko tresnak.

### **Zenbat iraungo du?**

Laguntza emateko prozesuak 3 orduko iraupena duten taldeko lau saio eta erakundearen arabera indibidualizatutako 2 orduko hiru saio biltzen ditu.

### **Non egingo da?**


Batera egindako lan-saioak Bilbon egingo dira, EDE Fundazioan. Banakako saioak erakunde bakoitzaren bulegoetan egingo dira

### **Zenbat balio du?**

- Erakunde bakoitzaren partaidetza-kostua 2.500 eurokoa izango da.
- INDARTU programak (BBK-Gizarte Ekintza eta EDE Fundazioa) 2.000 euro estaltzen ditu.
- Erakunde bakoitzak, horrenbestez, 500 euroko ekarpen ekonomikoa egin beharko du.

Izena emateko azken eguna: Ekainak 6

Sareak eta  
alforjak  
ehunduz



## Harremanetarako

### EDE Fundazioa



Simón Bolívar 8 b  
48010 Bilbao



94 400 99 99



[ccarazo@fundacionede.org](mailto:ccarazo@fundacionede.org)



[www.fundacionede.org](http://www.fundacionede.org)